

Organoa edo Batzordea: Osoko Bilkura.
Bilera-mota: ohikoa.
Eguna: 2007/11/28
Ordua: Hasiera: 19:30 eta bukaera: 21:15
Tokia: Legazpiko udaletxeko Batzar Aretoa.

Organo o Comisión: Pleno.
Tipo de Convocatoria: ordinaria.
Día: 28/11/2007
Hora: Comienzo: 19:30 y final: 21:15
Lugar: Salón de Plenos del Ayuntamiento de Legazpi.

Bertaratuak:

Sotero Plazaola Odriozola, alkatea.
Mikel Alzelai Zulaika, EAeko zinegotzia.
Jon Erramun Uribeetxeberria Bidegain, EAeko zinegotzia.
Ane Urkiola Alustiza, EAJko zinegotzia.
Francisco Javier Iraeta Alvarez, EAJko zinegotzia.
Juan Miguel Urrutia Castillon, EAJko zinegotzia.
Juan Ramon Larrañaga Mercero, EAko zinegotzia.
Arantza Arizmendi Guereñu, EAko zinegotzia.
Vicente Garmendia Martinez, EAko zinegotzia.
Iñaki Sanchez Gastañares, EB-BERDEAKeko zinegotzia.
Ana Salinero Maestre, atxiki gabeko zinegotzia.
Oscar J. Luis Murillo Perez, PSE-EEko zinegotzia.
Fernando Arakama Fernandez, kontuhartzailea.
Jon Mikel Garagarza Roteta, idazkaria.

Bertaratu ezina adierazi dutenak:

Jose Morcillo Guerrero, PSE-EEko zinegotzia

Aztergaiak:

1. Bidezkoa bada, joan den 2007-10-31ko bilkurari dagokion akta onartzea.

GAZTERIA:

2. Legazpi, Urretxu eta Zumarragako udalen arteko hitzarmena, astialdiko begirale titulua ateratzeko ikastaroa kudeatzeko dena.

Asistentes:

Sotero Plazaola Odriozola, alcalde.
Mikel Alzelai Zulaika, concejal de ANV.
Jon Erramun Uribeetxeberria Bidegain, concejal de ANV.
Ane Urkiola Alustiza, concejal de PNV.
Fco. Javier Iraeta Alvarez, concejal de PNV
Juan Miguel Urrutia Castillon, concejal de PNV.
Juan Ramon Larrañaga Mercero, concejal de EA.
M^a Aranzazu Arizmendi Guereñu, concejal de EA.
Vicente Garmendia Martinez, concejal de EA
Iñaki Sanchez Gastañares, concejal de EB-BERDEAK.
Ana Salinero Maestre, concejal no adscrita.
Oscar J. Luis Murillo Perez, concejal de PSE-EE
Fernando Arakama Fernández, interventor.
Jon Mikel Garagarza Roteta, secretario.

Personas que han excusado su asistencia:

José Morcillo Guerrero, concejal de PSE-EE

Orden del Día:

1. Aprobación, si procede, del acta de la sesión del 31-10-2007.

JUVENTUD:

2. Convenio entre los Ayuntamientos de Legazpi, Urretxu y Zumarraga para gestionar el curso sobre el título tiempo libre.

GIZARTE ONGIZATEA:

3. Azaroaren 25eko Adierazpen Instituzionala Emakumeenganako Indarkeriaren aurkako Nazioarteko eguna.
4. Udalak Gizartearen Mesederako Lanak eta konpontzeko zeharkako prestazioak betetzen eta gauzatzen direla bermatzeko abiaburuko atxikitze-protokoloa

HIRGINTZA, OBRAK ETA ZERBITZUAK:

5. Zertan taldeari musika lokalen doako lagapena.
6. Bidezkoa bada, lizentziak ematea eteteen datzan akordioa luzatzea.

**INDUSTRIA, ENPLEGUA ETA
MERKATARITZA:**

7. Industrialdearen izena.

**ETXEBIZITZA, AUZOA ETA
INGURUGIROA:**

8. Udal lurzorua ondatze publikoa eratzeko akordioa.

LANGILEGOA:

9. 2007. urteko lanpostuen zerrendaren aldaketa.
10. 2008. urterako lan egutegiak.

OGASUNA:

11. Kreditu aldaketa.

ALKATETZA:

12. Luzatu diren dekretuen berri ematea.
13. Eskariak eta galderak.

Esan-eginak eta erabakiak:

1. Bidezkoa bada, aurreko bilkurari dagokion akta onartzea.

Aho batez onartu da aipatu akta.

BIENESTAR SOCIAL:

3. Declaración Institucional 25 de noviembre Día Internacional contra la violencia hacia las mujeres.
4. Protocolo de Adhesión de municipios al acuerdo marco en materia de cumplimiento y realización de prestaciones en beneficio de la Comunidad y Reparaciones Indirectas.

URBANISMO, OBRAS Y SERVICIOS:

5. Cesión gratuita de los locales de música a Zertan.
6. Aprobación, si procede, de la ampliación de la suspensión en el otorgamiento de las licencias.

INDUSTRIA, EMPLEO Y COMERCIO:

7. Denominación Industrialdea.

VIVIENDA, BARRIOS Y MEDIO AMBIENTE:

8. Constitución del Patrimonio Público del Suelo municipal.

PERSONAL:

9. Modificación de la relación de puestos de trabajo del año 2007.
10. Calendarios laborales 2008.

HACIENDA:

11. Modificación de créditos.

ALCALDIA:

12. Dar cuenta de los decretos dictados.
13. Ruegos y preguntas.

Temas debatidos y acuerdos adoptados:

1. Aprobación, si procede, del acta de la sesión anterior.

Dicha acta es aprobada por unanimidad.

GAZTERIA

2. Legazpi, Urretxu eta Zumarragako Udalen arteko hitzarmena, astialdiko begirale titulua ateratzeko ikastaroa kudeatzeko dena.

Lehenik, Korporazioko idazkariak hartu du hitza eta, ezer baino lehen, Osoko Bilkurak goian azaldutako gaia eguneko aztergaietan sartuko den erabaki behar duela adierazi du, izan ere, Batzorde informatiboak ez du gai horren gaineko irizpenik eman.

Juan Ramón Larrañagak hartu du hitza. Hasiera batean bere taldeak gaia gaitzertzen sartzea onartuko duela esan du; dena den, hitzarmen hau urtero egiten denez, aurreikusi daitekeen gauza bat da. Premiazko gauzak apartekoak izan behar dira.

Mikel Alzelai zinegotziak, laburbilduz, hitzarmenaren edukia azaldu du. Legazpiko, Urretxuko eta Zumarragako Udalek haur eta gazteentzat dituzten programetarako prestakuntza egokia duten jendea behar dute, horregatik astialdiko begirale titulu ofiziala etxetik gertu lortzeko aukera eskaini nahi da. Bukatzeko, Legazpiko udalerako benetako gastua 2.182,50 eurokoa izango da.

Óscar Murillo zinegotziak hartu du hitza. Kontutan izanik ikastaro hone laugarrenaldia dela, intersgarria izango litzateke ikastaroa egin dutene artean ea norbaitek interesa duen aisialdiko zuzendari ikastaroan, bere ustez, hau izango litzateke hurrengo pausua.

Gaia erabakitzeko botoetara jo ondoren, aho batez onartu da Legazpi, Zumarraga eta Urretxuko Udalen artean hitzarmena sinatzea, astialdiko begirale titulua ateratzeko ikastaroa kudeatzeko.

JUVENTUD

2. Convenio entre los Ayuntamientos de Legazpi, Urretxu y Zumarraga para gestionar el curso sobre el título tiempo libre.

En primer lugar toma la palabra el Secretario de la Corporación para explicar que el Pleno ha de decidir sobre la inclusión del tema en el orden del día, ya que el mismo no ha sido dictaminado por la Comisión Informativa.

Toma la palabra Juan Ramón Larrañaga, su grupo va a apoyar la inclusión del tema en el orden del día, pero estima que este convenio es una cosa que se hace cada año y por tanto se puede prever. Los casos de urgencia han de ser excepcionales.

Toma la palabra el concejal Mike Alzelai, quien de forma sucinta explica el contenido del convenio. Los Ayuntamientos de Legazpi, Urretxu y Zumarraga necesitan personas preparadas para llevar adecuadamente los programas dirigidos a la infancia y juventud, por ello se quiere ofrecer la posibilidad de obtener cerca de casa el título oficial de monitor de tiempo libre. Acaba diciendo que el gasto real para el Ayuntamiento de Legazpi será de 2.182,50 euros.

Toma la palabra el concejal Óscar Murillo. Ya que es el cuarto año que se celebra este curso, habría que saber si los que han hecho el curso estarían interesados en el curso de Director de tiempo libre, sería el siguiente escalón.

Sometida la cuestión a votación se aprueba por unanimidad la suscripción del convenio entre los Ayuntamientos de Legazpi, Urretxu y Zumarraga regulador de la gestión del curso para la obtención del título de monitor de tiempo libre.

GIZARTE ONGIZATEA:

**3. Azaroaren 25eko Adierazpen
Instituzionala Emakumeenganako
indarkeriaren aurkako Nazioarteko eguna.**

Ana salinero zinegotziak hartu du hitza. Beste urte batez, Emakumeenganako Indarkeriaren aurkako Nazioarteko Eguna dela-eta, LEGAZPIKO Udalak salaketa egin nahi du eta biolentzia matxistaren aurka lanean jarraitzeko konpromisoa hartzen du, gure Udalerrian ere irauten duen gaitza baita.

Jakin badakigu emakumeen kontrako biolentziak kontzientzia kolektiboan sakonki errotutako jokabide-eredu soziokultural batean oinarrituta dagoela. Neska eta mutilak gizarteratzeko modu desberdinean du jatorria non eratzen, igortzen, barneratzen eta adierazten diren generoaren rola eta estereotipoak, eta, aldi berean, biolentziaren beraren legitimazio sozial eta kulturalako prozesuen bidez indartzen den. Biolentzia hori desagerrarazteko, ahal denik eta azkarren eta nahitaez bereizi behar dugu maskulinitatearen eta feminitatearen zenbait ereduren ikasketa emakumeen kontrako biolentzia erabiltzetik eta/edo legitimatzetik, eta, horretarako, berdintasunerako hezkuntzan, berdintasunean oinarritutako harreman afektibo osasuntsuen sustapenean eta pertsona autonomo, aske eta berdinen garapen integralean oinarritutako irtenbideak planteatu behar ditugu.

Aurten, neska nerabeen kontrako biolentziazko harremanetan jarri nahi dugu arreta, izan ere, sektore hori sarritan ahazten dugu arlo honetan garatzen ditugun ekimenetan. Gainera, azken azterketek erakusten dutenez, biolentzia sexista jasaten duten emakumeak gero eta gazteagoak dira. Biolentzia hori, besteak beste, beldurraraztearen, eraso fisikoaren edo abusuaren bidez gauzatzen da, baina baita modu finagoen bidez ere, esate baterako, isolamenduaren bidez, txantaje emozionalaren bidez, manipulazioaren bidez, erasoaren bidez, gutxietsiz eta, batez ere,

BIENESTAR SOCIAL:

**3. Declaración Institucional 25 de
noviembre Día Internacional contra la
violencia hacia las mujeres.**

Toma la palabra la concejala Ana Salinero. Un año más, con motivo del Día Internacional Contra la Violencia hacia las Mujeres, el Ayuntamiento de LEGAZPI quiere hacer pública su denuncia y su compromiso de seguir trabajando contra la lacra social que supone la violencia machista, y que persiste también en nuestro Municipio.

Sabemos que en el origen de la Violencia contra las Mujeres se sitúa en un patrón de conducta sociocultural, profundamente arraigado en la conciencia colectiva, y aprendido fundamentalmente a través de la socialización diferencial y desigualitaria de chicas y chicos, en la que se configuran, se transmiten, interiorizan y expresan los roles y estereotipos de género, y que se refuerza, a su vez, a través de procesos de legitimación social y cultural de la propia violencia. Para lograr erradicarla, es urgente y necesario lograr desvincular el aprendizaje de ciertos modelos de masculinidad y feminidad con el ejercicio y/ o la legitimación de la violencia contra las mujeres planteando alternativas basadas en una educación para la igualdad, en la promoción de relaciones afectivas sanas basadas en la equidad y el desarrollo integral de personas autónomas, libres e iguales.

Este año, queremos poner la atención en las relaciones violentas hacia las chicas adolescentes, sector que a menudo olvidamos en las iniciativas que desarrollamos en esta materia. Además, los últimos estudios nos muestran que las mujeres víctimas de la violencia sexista son cada vez más jóvenes. Esta violencia se ejercita a través de métodos como la intimidación, la agresión física o el abuso pero también a través de formas más sutiles como el aislamiento, el chantaje emocional, la manipulación, la desvalorización, el acoso y sobre todo el control, aspectos que

biktima kontrolatuz. Metodo horiek antzematen zailagoak dira neska eta mutil gazteentzat harreman afektiboetan.

Horren guztiaren jakitun, konpromisoa hartzen du, bere eskumenen esparruan eta indarreko legeria aplikatuz, berdintasunaren aldeko eta emakumeenganako indarkeriaren aurkako udal politika aktibo, oso eta koordinatua garatzeko, arreta berezia jarriz neska gazte eta nerabeen kontrako biolentzian, beraien partehartzea aintzat hartuta.

Gonbit egiten die hiritar guztiei, eta, bereziki, udalerriko neska eta mutilei azaroaren 25ean, Emakumeenganako Indarkeriaren aurkako Nazioarteko Eguna dela-eta Euskal herria enparantzan 13:00etan izango den kontzentrazioan parte hartzera.

Juan Ramón Larrañagak hartu du hitza. Pasa den legealdian Mankomunitatean berdintsua plana garatu zen, eta ildo honetatik EUDELEk Berdinsarea eratu zuen. Bertan parte hartzeko beharrezkoa den diagnostikoa egitea eskatzen da. Jadanik, diagnostiko hori eginda dago, beraz, Udala Berdinsarean sartzen eskatzen du.

Gizarte Zerbitzuetako Batzordeak, joan den 2007/11/20an egin zuen bileran, aho batez onartu zen Azaroaren 25eko Adierazpen instituzionala- Emakumeen Indarkeriaren aurkako Nazioarteko eguna.

Guztion aho batez Legazpiko Udalak aipatu aiderazpen instituzionalari atxikitzea onartu du.

4. Udalak Gizartearen Mesederako Lanak eta konpontzeko zeharkako prestazioak betetzen eta gauzatzen direla bermatzeko abiaburuko atxikitze-protokoloa

Ana Salinero zinegotziak azaldu du gaia. Akordio honen helburua gizartearen mesederako prestazioak gauzatzea da gazteen epaitegitik ezarria gazteei. Eusko

son más difícilmente identificables por las chicas y los chicos en sus relaciones afectivas.

El Ayuntamiento asumirá de desarrollar, en el ámbito de sus competencias y en aplicación de la legislación vigente, una política municipal activa, integral y coordinada a favor de la igualdad y contra la violencia hacia las mujeres poniendo especial atención en la violencia contra las chicas jóvenes y adolescentes, contando con la participación activa de éstas.

Invita a la ciudadanía, y de manera muy especial a las chicas y chicos del municipio a participar activamente en la concentración se llevará a cabo el domingo 25 de noviembre a las 13.00 horas en Euskal Herria plaza con motivo del 25 de noviembre, Día Internacional contra la Violencia hacia las Mujeres.

Toma la palabra Juan Ramón Larrañaga. En la pasada legislatura se desarrolló en la Mancomunidad el Plan de Igualdad, al hilo de esto desde EUDEL se creó Berdinsarea. Como condición de participar en Berdinsarea se exige la realización de un diagnóstico, cosa que ya está hecha. Por tanto pide la integración del Ayuntamiento en Berdinsarea.

En Comisión de Servicios Sociales celebrada con fecha 20/11/2007 se aprobó por unanimidad la Declaración Institucional 25 de Noviembre- Día Internacional contra la violencia hacia las mujeres.

Por unanimidad de los presentes se acuerda la adhesión del Ayuntamiento de Legazpi a la a la declaración institucional.

4. Protocolo de Adhesión de municipios al acuerdo marco en materia de cumplimiento y realización de prestaciones en beneficio de la Comunidad y Reparaciones Indirectas.

Toma la palabra Ana Salinero. El Departamento de Justicia, Empleo y Seguridad Social del GV se compromete a elaborar el plan de ejecución individual de la medida de

Jaurlaritzako Justizia, enplegu eta ongizate saila, Gizartearen Mesederako Lanak gauzatzeko plan bat egitera konprometitu da, herriko programa, zentro eta zerbitzuen bidez aurrezko onespenerekin eta gazte justizi zerbitzuetako profesional baten bidez.

Akordio honek duen helburua, gaizki egin duenak, gizartearen gaitzespen formal bat jasotzea eta zuzena dela ulertzea da.

Gaztea izango da prestazioa burutu edo birgizarteratze-zentro batetara joango den erabakiko duena, familiaren onarpenarekin.

Faltak gehienez 50 ordukoak izango dira eta delituak 100 ordura arte. Gaztea 16 urte gorakoa bada eta indarkeria edo intimidazio delituak badira 200 ordura arte igo daiteke, ez ordainduak. 4 orduko lanorduak izango dira 16 urte beherakoentzat eta 8 orduko gorakoentzat

HIRIGINTZA, OBRAK ETA ZERBITZUAK:

5. Zertan taldeari musika lokalen doako lagapena.

Alkateak hartu du hitza. Iraileko Osoko Bilkuran eman zitzaion hasiera espediente honi. Akordio hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen eta ez da alegaziorik aurkeztu. Hirigintzako Batzordeak aho batez irizpen hau onartu zuen:

Legazpiko Udalarenak diren musika lokalak Zertan Elkarteak 4 urtez erabiltzeko baimena izan dezan dagokion doako lagapena behin betiko onartzea eta dagokion hitzarmena sinatzeko Legazpiko Alkate-Lehendakaria eskumena ematea.

Gaia erabakitze botoetara jo ondoren, onartu egin da, 11 aldeko botoekin eta Iñaki Sanchez zinegotziaren abstentzioarekin.

PBC, mediante actividades en servicios, centros y programas del municipio previa conformidad y supervisados mediante profesionales del Servicio de Justicia Juvenil. Un equipo Psico-social Juvenil elaborara el plan de cumplimiento de la RI.

Este convenio tiene como objetivo que el sujeto comprenda que actuó incorrectamente y que merece un reproche formal de la sociedad y que dicha prestación que se exige es justa.

El menor será el que decida hacer la prestación o ir a un centro de reinserción de menores con el consentimiento familiar.

Las faltas serán de un máximo de 50 horas y los delitos no superaran las 100 horas. Si el sujeto es mayor de 16 años y fuera un delito con violencia o intimidación podrá llegar a ser de 200 horas, no retribuidas. En jornadas de 4 horas y si es mayor de 16 años, jornadas de 8 horas.

URBANISMO, OBRAS Y SERVICIOS:

5. Cesión gratuita de los locales de música a Zertan.

Toma la palabra el Alcalde. Con el Pleno de septiembre se dio inicio al presente expediente. El acuerdo se publicó en el Boletín Oficial de Gipuzkoa y no se han presentado alegaciones. La Comisión de Urbanismo, por unanimidad, adoptó el siguiente dictamen:

Aprobar definitivamente la cesión de uso gratuito de los locales de música propiedad del Ayuntamiento de Legazpi durante cuatro años a favor de Zertan Elkartea, facultando al Alcalde-Presidente del Ayuntamiento de Legazpi para la firma del correspondiente convenio.

Sometida la cuestión a votación, se aprueba la misma con 11 votos a favor y la abstención del concejal Iñaki Sánchez.

6. Bidezkoa bada, lizentziak ematea etetean datzan akordioa luzatzea.

Alkateak hartu du hitza eta gaia azaldu du. Gai hau hirigintzako batzordean aztertu zen. Gure ustez garrantzitsua da proposatzen den akordioa onartzea, etenak dauden arau subsidiarioen arabera baimenak ez emateko. Ziur gaude baimen hoiek, behin betikoz onartu behar den plan orokorraren aurkakoak izango direla, edozein izanda plan orokor hori.

Hirigintzako Batzordeak honako irizpen hau onartu zuen:

Aurreikusitako zehaztapen berriek indarrean dagoen hirigintza-erregimena aldatzea ekarriko duten eremuetan edozein motatako onarpen, baimen eta lizentziak ematearen etenaldia urte betez luzatzeko proposamena onartzea.

Segidan Ane Urkiola zinegotziak hartu du hitza eta hirigintza eginkizun publikoa dela, eta ondoko zeregin hauek antolatu, programatu, zuzendu, ikuskatu, kontrolatu eta hala dagokionean, egikaritzea duela helburu adierazi du:

- Lurzorua erabili edo baliatzea.
- Lurzorua, hirigintzaren antolamendua egikaritzuz eraldatzea. Hirigintza-eraldaketa hori urbanizatzearen eta eraikitzearen bidez garatzen da.
- Eraikitzea.
- Etxe, eraikin eta instalazioak erabili, zaindu eta berritzea.

Eginkizun publiko hauek garatzeko Hirigintza antolamendua daukagu besteak beste, eta bere bermea eta babesa Udalaren ardura da.

Eta hirigintzako antolamendurako Hiri Antolamendurako Plan Nagusia daukagu Legazpin, non datozen 8/10 urteetan gure herriaren garapen eta ordenazio urbanistikoa jasotzen da. Plan hau, behin betiko azken onarpenaren zain dago gaur.

6. Aprobación, si procede, de la ampliación de la suspensión en el otorgamiento de las licencias.

Toma la palabra el Alcalde. Este tema se trató en la Comisión de Urbanismo. Creemos que es conveniente adoptar el acuerdo que se propone, con el fin de que no haya que otorgar licencias a amparo de las Normas Subsidiarias en suspenso. Pensamos que eso sería contrario al Plan General, sea cual sea éste, que se vaya a aprobar definitivamente.

La comisión de Urbanismo adoptó el siguiente dictamen:

Aprobar la prórroga por un año de la suspensión del otorgamiento de toda clase de aprobaciones, autorizaciones y licencias en los ámbitos en la que las nuevas determinaciones previstas supongan modificación del régimen urbanístico vigente.

Toma la palabra la concejala Ane Urkiola. el urbanismo es una función pública que tiene por objeto la ordenación, programación, dirección, supervisión, control y, en su caso, ejecución de:

- La utilización o el uso del suelo;
- Su transformación urbanística mediante la ejecución de la ordenación urbanística, que se materializa en su urbanización y edificación;
- La construcción y la edificación;
- Y el uso, conservación y rehabilitación de construcciones, instalaciones y edificaciones.

Al desarrollo de esa función pública sirve, entre otras potestades administrativas, la ordenación urbanística, de cuya garantía y protección responden los ayuntamientos.

Y como instrumento de ordenación urbanística, en fase pendiente de su aprobación definitiva, tenemos en legazpi el llamado plan general de ordenación urbana, sobre el que se asienta el desarrollo y la ordenación urbanística de nuestro pueblo para los próximos 8/10 años.

Hirigintzako antolamenduak, honako eginkizun hauek aurreikusten ditu besteak beste:

1. Udal-mugartearen azalera osoa hiri-lurzoru, lur-zoru urbanizagarri eta lur-zoru urbanizaezin modura sailkatzea.

2. Udal mugartearen kalifikazio orokorra egitea, erabilera nagusi ezberdineko zonetan zatituta.

3. Udal-mugarte osoan egiturazko antolamendua ezartzea, (besteren artean, honakoak zehaztea: izaera orokorrez hiri-bilakaera eta lurzoruaren okupazioa udalerrian; lurzoruaren sailkapena hiru mailatan: hiri-lurzorua, lurzoru urbanizagarria eta lurzoru urbanizaezina; kalifikazio globala zonaldean lurzoruaren banaketarekin eta horietan erabilera publikoko eta erabilera pribatuko zonaldeak bereiziz; Garapeneko plangintzak egin eta onartzeko eta lurzoruaren programaziorako epeak finkatzea; ingurumena babesteko, natura zaintzeko, paisaia babesteko, elementu naturalak eta artifizialak babesteko, Jarraibideak; kultur ondarea, hiri-garapenean arrazionaltasuna eta koherentzia segurtatuko duten sistema orokorren sarea zehaztea; etxebizitzaren gutxieneko kopuruak eta estandarrak beteko direla bermatuko duten zehaztapenak, hala nola errotazio-lojamenduetarako erretserbak egiteko babes publikoaren erregimenen baten menpekoak,....) eta hiri-lurzoruan eta lur-zoru urbanizagarrian, berriz, antolamendu zehatua.

4. Hiri-lurzoruan eta lur-zoru urbanizagarrian, bai gehieneko eta gutxieneko eraikigarritasun fisikoak, bai herritarren ongizaterako egokiak diren zuzkidurak adieraztea. Lurzoru urbanizaezinean, berriz, lurzoru hori zaintzarekin bateragarriak diren erabilerak zehaztea.

5. Zehaztea, kalifikazioaren bidez, plangintzak zein lurzorutan ezarriko dituen zenbat erabilera babestu jakinik lotuta dauden

Este plan comprende, entre otros aspectos, los siguientes:

1. La clasificación de la superficie completa del término municipal en suelo urbano, urbanizable y no urbanizable.

2. La calificación global del término municipal, dividiéndolo en zonas de distinta utilización predominante.

3. La ordenación estructural en todo el término municipal (que comprende la determinación entre otras, con carácter general, de aspectos como la estrategia de la evolución urbana y la ocupación del suelo en todo el término municipal, su clasificación en suelo urbano, urbanizable y no urbanizable, la calificación global con la división de la totalidad del suelo en zonas, distinguiendo además entre zonas de uso público y zonas de uso privado, la fijación de plazos para la elaboración y aprobación del planeamiento de desarrollo y para la programación del suelo, directrices de protección del medio ambiente, conservación de la naturaleza, defensa del paisaje, elementos naturales y artificiales, patrimonio cultural, determinación de la red de sistemas generales que asegure la racionalidad y coherencia del desarrollo urbanístico, determinaciones precisas para garantizar el cumplimiento tanto de los estándares y cuantías mínimas de viviendas sometidas a algún régimen de protección pública como de las reservas para alojamientos rotacionales, ...etc) y la pormenorizada en el suelo urbano y urbanizable.

4. Señalar en suelo urbano y urbanizable las edificabilidades físicas máxima y mínima y las dotaciones adecuadas al bienestar de la población...

5. Determinar, a través de su calificación, los suelos sobre los que el planeamiento procederá a la implantación de edificaciones afectas a determinados usos protegidos, entre

eraikuntzak, horien artean, babes publikoko araubide bati atxikitakoak diren etxebizitzak.

6. Lurzoruaren erabilera arautu, eta orobat lurzoru horren gainean egingo diren obra-mota guztiak baimentzeko baldintzak ere.

7. Hirigintzaren antolamendua egikaritzeko beharrezkoa den programazioa egin.

8. Berritu eta birgaitu egingo diren eremuak mugatu, bai eta udalekiko ondare urbanizatu eta eraikia babesteko arauak ere.

9. Eta landa-guneak eta lehenasunez erosteko zein atzera eskuratzeko eskubideei atxikitako eremuak mugatu, e.a.

Eta guzti hau eginda dago. Proiektuaren edo egitasmoaren idaztea eta aurre-tramitazio faseen ondoren, ekipo erredaktorearen, korporazioaren eta udal administrazio beraren inplikazioarekin, eta batez ere legazpiarren parte hartze itzalarekin, 2006ko azaroak 26ko Udal Batzan hasierako onarpena izan zuen. Eta onarpen honen ondoren, legea jarraituz, lizentziak emateko aukera bertan bera utzi zen.

Aipatutako hasierako onarpenaren ondoren, jendaurrean jarri zen egitasmoa, herritar guztiek jakin eta, nahi zuenak, alegazioak aurkeztu zezan. Eta hauen azterketa, atzera botatzea edo onartzea bere kasuan, egitasmoan sartu, dagozkion legezko txostenak Portu eta ondoren, Udal batza honek eman behar duen behin-betiko azken onarpenaren zain dago. Eta ez dakigu, hau, noiz izango den.

Lizentzien bertan behera uzteak mota guztietako onarpen, baimen eta erabilera zehatzei buruzko hirigintza-lizentziengan du eragina, hasierako onarpenaren ondoren plangintza urbanistikoak egiteko, aldatzeko edo birpasatzeko helburuarekin. Eta guzti hau suposatzen duen Bertan behera uztearen

ellos viviendas sometidas a algún régimen de protección público.

6. Regular la utilización del suelo y las condiciones de autorización de todo tipo de obras sobre el mismo.

7. Establecer la programación precisa para ejecutar la ordenación urbanística.

8. Delimitar ámbitos objeto de regeneración y rehabilitación y las normas de protección del patrimonio urbanizado y edificado del municipio.

9. Delimitar los núcleos rurales y los ámbitos sometidos a los derechos de tanteo y retracto, etc, etc

Y todo esto ya está hecho. Tras las fases previas de redacción y tramitación del proyecto, en el que ha destacado una públicamente reconocida alta participación ciudadana, y en el que se han volcado tanto el equipo redactor como la corporación y la propia administración municipal, fue aprobado inicialmente en el pleno de 29 de noviembre de 2006. Tras lo cual, efectivamente, se procedió a la suspensión de otorgamiento de licencias, tal y como dispone la legislación aplicable.

Tras la precitada aprobación inicial, se procedió a la consabida exposición pública, para conocimiento de todo el pueblo y presentación de las alegaciones pertinentes. Y tras el estudio, rechazo o aceptación en su caso de las mismas, su inserción en el proyecto, informe jurídico favorable de la comisión de ordenación territorial del gobierno vasco, que conjuga informes jurídicos de todos los demás departamentos afectados por el plan, sólo resta la aprobación definitiva otorgada por este pleno, que no se sabe cuándo será.

La suspensión de licencias, cuya prórroga se solicita en este pleno, afecta al otorgamiento

luzapena onartzea eskatzen zaigu gaur hemen.

Lizentzien bertan behera uztea objetiboki motibatzen duten arrazoiak gaindituta daude Legazpin. Hemen onartu gabe dago behin betiko hiri-antolamendurako plan orokorra eta plan horrek zabalkunde handia izan du eta hura egiteko ezaugarri garrantzitsuena herritarren parte hartzea izan da, bestek beste.

Eta gure herriak, Plan berriaren eskutik, ibiltzen hasi behar du behingoz, datozen hamar urteetan herriak eta legazpiarrok izango ditugun beharrei aurrea hartuz.

Ez dugu atzera pausorik egin nahi egindako bidean, ez dugu bertan – behearen luzapenik: gobernu taldearen erantzukizunari dei egiten diogu eta Planaren behin – betiko onarpenerako Osoko Bilkura eskatzen dugu.

Ondoren, Juan Ramon Larrañaga zinegotziak hartu du hitza. Ane Urkiolak esandakoarekin erabat ados dagoela adierazi du. Egindako izapide guztiez gain, Plan Orokorra pasa den uztailaren 26an EALABren aldeko txostena jaso zuen; bilera hartan Alkatea Idazkariarekin egon zen, eta orain arte ez dugu inongo informaziorik jaso. EALABren txostena adituek eta Eusko Jaurlaritzako zuzendariek egin dute. Etengabe Plan Orokorren behin betiko onarpenaren plenoa noiz ospatuko den galdetu izan da, erantzunik jaso gabe. Gainera, Plan Orokorren inguruan gaur egun dagoen eztabaidan alderdi politikoak eta udal teknikariak baztertu dira. Baimenen eteteak Legazpiko pertsonen eta egitateen interesen kontrako egoerak sortuko ditu. Gure botoa kontrakoa izango da eta gainera Alkate Jaunari eskatzen diogu lehenbailehen pleno honetara Plan Orokorra ekartzea.

de toda clase de aprobaciones, autorizaciones y licencias urbanísticas para ámbitos o usos determinados, a los efectos de elaboración o, en su caso, la modificación o revisión de de los planes urbanísticos desde su aprobación inicial.

Las razones que objetivamente motivan la suspensión de otorgamiento de licencias están clara y evidentemente superadas en Legazpi, pendiente de la aprobación definitiva del plan general de ordenación urbana, plan que se caracteriza por su amplia difusión y participación ciudadana, entre otros aspectos.

Y de lo que se trata es que con el plan en la mano, nuestro municipio comience a andar y se anteponga a las vicisitudes y necesidades de la sociedad legazpiarra de los próximos diez años.

No queremos desandar el camino ya recorrido; no queremos prórrogas de suspensiones, sino que invocamos a la responsabilidad del equipo de gobierno de este ayuntamiento y lo que reclamamos es el sometimiento a este pleno de la aprobación definitiva del plan.

Toma la palabra Juan Ramón Larrañaga. Se muestra totalmente de acuerdo con lo manifestado por Ane Urkiola. Además de toda la tramitación realizada, el Plan General recabó el 26 de julio informe favorable de la COTPV, en dicha reunión estuvo el Alcalde con el secretario y no hemos tenido información de ella hasta ahora. El informe está suscrito por expertos y directores del Gobierno Vasco. Se ha solicitado información repetidamente de cuando se va a celebrar el pleno de aprobación definitiva del Plan General. Además, de la discusión que hay ahora del Plan General se está excluyendo a los partidos políticos y a los técnicos municipales. La suspensión de licencias va a generar actuaciones contrarias a intereses personas y entidades legazpiarras. Nuestro voto va a ser en contra e instamos al señor Alcalde a que presente a este pleno lo antes

Jarraian Ana Salinero zinegotziak hartu du hitza. Erabat desinformatuta dagoela esan du, berak informazioa eskatu du eta ez zaiola eman azaldu du.

